


**A4342**
Irutxulo Urtekaria 2001 / Irutxulo. Donostia, 2001. 46 p..

CASARES KULTUR ETXEA **Tokiko Bilduma**

# DONOSTIAKO OSASUN GIDA


**Ainhoa Aierdi**

Elikagaien teknologian lizentziatua

Nutrizioa eta Dietetikan diplomatua

- Ondo elikatzeko biderik zentzudunena ezagutu
- Gorputzeko grasa, giharra eta ura ezagutu
- Kirolariak, argaldu eta gizentzeko dietak, haur eta gazteak, kolesterola, azukrea, burnia...
- Bakoitzaren ohiturei egokituriko elikadura

Biteri plaza 1 solairuartekoa ezkerra
20001 DONOSTIA • Tel.: 943 290616

---

TAI CHI CHUAN eskola

EGUNEROKO KLASEAK
TAI CHI CHUAN,
Qi GONG
eta SOINKETA
TERAPEUTIKOA

Kanpandegi 10 •
20003 DONOSTIA
• Tel.: 943 423757
info@taichichuaneskola.com
www.taichichuaneskola.com

---

**ZINKUNEGI**
**OPTIKA**

MULTIOPTICAS

Hernani, 4 • 20004 Donostia
Tel.: **(943) 42 06 24**

---

Rafa Garaikoetxea
**Mediku-Odontologoa**
Kolegiatu Zenbakia 415

Pelotari 17 behea. Tel. 33 00 89. Astigarraga.

---

**PABLO LECHUGA DURAN**

*Kiromasaia*
*Masai terapeutikoa eta*
*kirol masaia*
*Esku-terapiak*
*Etxe zerbitzua*

Karmelo Etxegarai 5-1º
20018 DONOSTIA
Tel.: 943 210 164
Mugikorra: 600 083 210

---

**FRANCISCO FAJARDO**
**OSTEOPATA**

- BIZKAR HEZURRA
- LUMBAGOA
- ERRAIETAKO ... GASTRIKOA
- MOTA GUZTIETAKO ... ASAIAK
- DRENAJE LINFATIKOA
- AZTERKETA ORGANIMETRIKOA

MIRAMAR KALEA 5, 1 EZK.
DONOSTIA TEL: 943 420458

---

**G Germán**

MEDIKUNTZARAKO OSAGARRIAK
ERIZAINTZA
ETA MEDIKUNTZARAKO MATERIALA
ORTOPEDIA

OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

3. Adinekoentzat laguntza teknikoak
*Oinetako zapata bereziak
(diabetikoak, erreumatikoak, oin oso zabalak)

Trueba kalea 12
Telefonoa 943-320694 Faxa 943-274910

---

DIAGNOSTICO
CENTRO DE
URBIETA

Analisi klinikoak
Radiologia
Ekografiak
Kardiologia
Azterketa medikoak

Urbieta 58-20006
Tel.: 943 470 144 / 75
Faxa: 943 470175

---

2821 kolegiatua

**BELEN MUGUERZA ERASO**

MEDIKUA - AKUPUNTOREA
ESKUZ EGINIKO
DRENAJE LINFATIKOA

☎ **943 42 46 70**

Garibai, 34 - 4ºA • DONOSTIA 2004

---

**NUTERGIA**
FUNTSEZKO ELIKAGAIAK

Produktu ortomolekularrak
Oligoelementoak
Fitoterapia (Desmodiuma...)

NUTERGIAren «osasun kontzeptua»
1/ Toxinen aurkako ekintza
2/ Suspertze metabolikoa eta terrenoaren berregituraketa
3/ Akzio espezifikoak

Autonomia kalea, 9 behea Tel.: 943 459102
Web: www.nutergia.com e.mail: nutergia@i2000.es

---

**DIETETIKA ETA ELIKADURA**

**Dra. ANA GARBIZU**

- Haur eta helduen loditasuna
- Jarraipen mediku iraunkorra
- Dieta anitz eta erakargarriak
- Elikadura hezkuntza (diabetesa, kolesterola, bulimia, anorexia...)

SAN IGNAZIO KLINIKA
ELOSEGI HIRIBIDEA 43 DONOSTIA
TEL.: 943-287300, 666-526047

Kontsulta egunero ordua aldez aurretik eskatuta

---

FEDEROPTICOS
**LEGARDA**

**KATE baten abantailaz gain, harreman pertsonala eta profesionaltasuna**

*Matia 25 ☎ 21.09.97*

**OPTIKA**



# 2002ko haizeak

Beste urtebete pasatu da, lagunak, eta 2002an sartuko gara laster, ia-ia konturatu gabe, ohi bezala. Agur esan digun urteak mota guztietako albisteak utzi dizkigu. Nagusia, zalantzarik gabe, nazioartetik etorri zitzaigun: New Yorken eta Washingtonen izandako atentatuak eta Afganistanen ondoren piztutako gerra. Euskal Herriari dagokionez, EAEko maiatzeko hauteskundeek zeresana eman zuten eta zenbaitentzat ezustekoa ekarri zuten. Ezin ahaztu, halaber, euskal gatazka eta indarkeriak; haiek ere zoritxarreko albiste izan dira 2001ean. Donostian ere ez dugu albiste falta izan. Hiru nabarmenduko ditugu: udal gobernuaren krisialdia, San Bartolomeko proiektua bertan behera geratu izana eta Realaren salbazioa.

Zein erronka izango dute Donostiak eta donostiarrek 2002an? Udalak Plan Estrategikoa eskuartean du. Planak hainbat helburu eta egitasmo ezarriko ditu eta udal agintarien esanetan, etorkizunerako tresna garrantzitsuenetako bat izango da. Hortaz, gizartearen parte hartzeak ezinbestekoa izan behar luke. Kontuan hartuko al da ohiko erabakietan oihartzun txikia izaten duten zenbait talderen iritzia (gazteak, langabetuak, baserritarrak, euskaltzaleak...)? Prest al dago Donostiako gizartea jarrera aktiboagoa izateko?

Beste erronka bat: bizikletaren erabilera. 2001ean Udalak Kontxako bidegorriari baiezkoa eman ondoren, datorren urtean garraiobide hau sustatu beharko litzateke, besteak beste, bidegorri sarea zabaltzeko eta hobetzeko neurriak hartuta.

Etxebizitzaren arazoak ere lehentasuna izan behar luke erakundeentzat 2002an. Izan ere, aspaldiko arazoa da hauxe Donostian eta neurriak hartzen ari diren arren, oraindik ere gazte (eta ez hain gazte) askok ez dute etxebizitza izateko aukerarik.

Eta euskara, jakina. Udalak bi plan ditu mahaigainean: udal funtzionarien euskalduntze plana eta Euskararen Plan Orokorra. Plan horiek ahalik eta azkarren eta ondoen garatu behar dira. Dena dela, euskararen normalizaziorako bidean, erakundeek ezezik, gizarteak ere badu zereginik. Denok euskara gehiago erabiltzea da gure hizkuntzaren alde egin dezakegun onena. Horra hor apustua!

**Adi irakurle**

**Datorren ostiralean, urtarrilak 3, IRUTXULO ez da kaleratuko. Beraz, hurrengo zita urtarrilaren 10ean izango dugu. Urteberri on denoi eta ondo pasa!**



# Zaratatren aurkako araudi berria indarrean

Iaz onartutako araudi berria urtarrilaren 17an jarri zen indarrean. Araudia zorrotza da, eta garai bateko neurriak gogortu ditu, esaterako, hutsegite larriena bost milioi pezetako isunaz zigor daiteke. Horrez gain, arautu gabeko jarduerak bildu dira bertan: alarmak, zama lanak, motorrak... Donostian zarata arazo bilakatu da. Etxeak soinugabetzeko Udalak emandako dirulaguntzak edota tabernek egindako ordutegi urratzeak zirela eta, aurten Parte Zaharreko Ixo elkarteak kexu ugari plazaratu ditu. Lasaituko al du araudi berriak donostiarron loa?



Urtarrilak 17



Urtarrilak 18

# Euskal Herriko lehen Zientzia Museoa zabalik

Ia urtebeteko atzerapenez, baina azkenean, urtarrilaren 18an Zientziaren Kutxagunea inauguratu zen Miramonen. Londresetik ekarritako "Dinosauria 2000" izenburuko erakusketak estreinatu zuen Euskal Herriko lehen Zientzia Museoa. Lehen hilean museoak 1.000 bisitari izan zituen eguneko. Guztira, 8.000 metro karratu ditu museoak. Udan "Atapueca eta giza bilakaera" izeneko erakusketa izan zen ikusgai bertan. "Homo antecessor"-ek, Europako lehen gizakiak, ikusmira handia piztu zuen donostiarren artean.





Kalitate handiko haragiak

Geure tailerra

- Etxeko entsaladak, itsaskia, barazkiak, entsaladilla errusiarra...
- Frijituak eta era guztietako birrineztatuak
- Piperbeteak
- Lasagna, orburuak, betetako kalabazinak...
- Patorrilloa, karakolak, galeperrak...
- Albondigak, tripakiak eta abar...
- Azkenburu egin berriak... arroz-esnea, natilak...

Etxez etxeko zerbitzua

Tel.: 943 45 45 20 Isabel II, 29

24 ORDUKO ETENGABEKO ZERBITZUA
943 37 69 80 ☎ 943 37 68 80

TANATORIO DONOSTIALDEA
DONOSTIALDEKO BEILATOKIA
www.tanatoriodonostialdea.com

- Hileta zerbitzu orokorrak
- Eskela zerbitzuak
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- Beila aretoak
- [illegible]
- Laguntza psikologikoa
- [illegible]
- [illegible]
- [illegible]
- Erraustketak

Errekalde Etorbidea, 57 Tel: 943 37 69 80* Faxa: 943 37 68 79 20018 AÑORGA - DONOSTIA
Fuenterrabia kalea, 28 Tel: 943 42 17 86 Faxa: 943 42 59 64 20005 DONOSTIA

# "Nanai" umeentzako aldizkaria kalean

Baikararen (Gipuzkoko Eskola Publikoko Gurasoen Federazioa) eta Ikasbiren (Ipar Euskal Herriko Eskola Publikoko Gurasoen Federazioa) ekimenez sortutako "Nanai" hilabetekaria Euskal Herri osoan banatzen da ikastetxe publiko zein pribatuetako ikasleen artean. "Nanai"-k haurren gustuko gaiak jorratu ohi ditu: sukaldaritza errezeta errazak, jolasak, ipuinak... Aldizkariaren aurkezpena Amara Berriko Katalina Erauso ikastetxe publikoan egin zen urtarrilaren 22an. Hilabete barru, beraz, urtebete beteko du Euskal Herriko haurrentzako hilabetekari berriak.



Urtarrilak 22




Urtarrilak 23

# Polizia Zabaltzenen eta Bilintxen urtemuga

Urtarrilaren 23an Espainiako Polizia Zabaltzen enpresan sartu zen Baltasar Garzon epailearen aginduz, banatzaileak ETArekin zerikusia zuelakoan. Euskal Editoreen Elkarteak (EEE), Kontseiluak, AEKk eta euskalgintzako beste hainbat taldek gogor kritikatu zuten Garzonen erabakia. Baita EA eta EH alderdiek ere. Zorionez, urriaren 29an plazaratutako autoak hipotesia indargabetu zuen. Astebete pasatxo beranduago, Zabaltzenen eta Bilintx dendaren 25.urtemuga ospatu zuen Elkarlanean Fundazioak. Urte askotarako..




FATIMA ANSOLA

Zorionak
eta
Urteberri on

San Martzial 33 - 20005 Donostia - Tel.: 943-420941 eta 943-426237
Artzain Onaren plaza 1 - 20005 Donostia - Tel.: 943-431979

**Otsailak 10**



# Bertso Eguna Kursaalera itzuli zen

1935ean Kursaaleko Poxpolin antzokian lehen Bertsolari Eguna egin zen. 60 urte beranduago Bertso Eguna Kursaalera itzuli zen. Ganbara aretoan egitekoa zen eguneko jaialdi nagusia, baina sarrerak agortzear zeudela ikusirik, Auditoriumera aldatzea erabakia zuen Bertsozale Elkarteak. Otsailaren 10ean egin zen Bertso Eguna eta, azken urteetan bezala, bertsotrama izan zen ikuskizunaren ardatza. Bertsogintza berritzen ari den seinale.

# Goi Mailako Musika Ikastegia Miramarrera

EAEko Goi Mailako Musika Ikastegiaren (GMMI) kokapena kolokan izan da hainbat urtez. EAEko hiru hiriburuek hartu nahi zuten LOGSE legea dela eta, sortu beharreko ikastegi berria. Hilaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak EAEko Goi Mailako Musika Ikastegia Donostian egitea erabaki zuen. Hiru urtez ikastegi berria Miramar Jauregian egongo da, eta ondoren, Ibaetan egitekoa den egoitzan. Azkenik, azaroan hasi zen GMMIren lehen ikasturtea.



**Otsailak 19**






## Samina Donostian

Euskal Herriak bizi duen gatazkaren ondorioz, hildakoak izan dira Donostian. Otsailaren 22an ETAk Martutenen leherrarazitako bonba autoak bi langile hil zituen: Josu Leonet eta Jose Angel Santos. Atentatuaren helburua Iñaki Dubreuil PSE-EEko zinegotzia zen. 2001ean, hala ere, ETAk beste bi pertsona hil ditu Donostian: Ramon Diaz Espainiako Itsas Komandantziako sukaldari loiolatarra (2001-01-26) eta Santiago Oleaga El Diario Vasco egunkariko finantza zuzendaria (2001-05-24) Abuztuan ere samina zabaldu zen Donostian, izan ere, Olaia Kastresana ETAko militantea Alacanten hil zen, lehergailu bat erabiltzen ari zela (2001-08-24).



**Otsailak 22**



**Otsailak 27/28**

## Negu Gorriaken azken guda dantza belodromoan

Negu Gorriak taldeko kideek Baionan eta Donostian egin zituzten azken kontzertuak. Donostiakoetan 24.000 lagunek gozatu ahal izan zuten emanaldiez, eta sarrerak astebete lehenago agortu ziren. Besteak beste, Italia, Galizia, Bartzelona, Almeria, Valentzia eta Madrildik hainbat autobus etorri ziren, Euskal Herriko bazter guztietatik etorritakoak kontuan hartu gabe. Hunkigarria izan zen taldearen agurra. Guda dantza, hala ere, ez da amaitu.






## Aurrekontua mahai gainean

Martxoaren 1ean Udal Gobernu Batzordeak 2001eko aurrekontuaren hitzarmena sinatu zuen. Eztabaida luzeen ondoren, azkenean aurrekontua maitzaren 18an onartu zen. Aurrekontuaren atzerapenak kritika zorrotzak jaso zituen oposizioko alderdien artean. Bestalde, aurten lehendabiziko aldiz, hiriko talde eta elkarteek beren proposamenak aurkezteko aukera izan zuten. Hala ere, Auzo Elkarteen Koordinadorak deialdia berandu plazaratu zuela leporatu zion Udalari. Uliako Auzo Elkarteak, bestalde, berriro ere Saguesen aparkalekua egitea eskatu zuen.



Martxoak 1



Martxoak 17

## AEKren aurkako eraso berria

Amara Berriko AEKko euskaltegiak, zabaldu zenetik, lau eraso jasan ditu. Martxoaren 17an hainbat ezezagunek euskaltegia harrikatu eta ateko eta leihoetako kristalak apurtu zituzten. Hala eta guztiz ere, bertako arduradunek ez zutela etsiko eta, *"oztopo guztien gainetik euskalduntze eta alfabetatze lanetan jarraitzeko asmoa zutela"* jakinarazi zuten. Begi bistan dagoenez, Garzonek jarraitzaileak ditu Donostian ere.

Zorroaga
HILETA ZERBITZUAK

**GAUZA HAUEK ESKAINTZEN DITUGU:**
Hileta kontu guztiak - Hil-kutxen erakusketa eta salmenta
Lore-koroak - Eskelak - Hildakoak herri batetik
beste batera eramatea; baita atzerritik ere
Tanatorioa

**ARRETA IRAUNKORRA 24 ORDUZ**

Hondarribia 21 • Tel.: (943) 42 21 29 • Faxa: (943) 42 21 29



• **Ikastetxe eta lantegientzako zerbitzu bereziak**
• **Era guztitako bidaiak, baita atzerrira ere**
• **Komuna eta literadun autobusak**

AUTOCARES VLIA

Tel.: (943) 46 96 98
Tel: (943) 46 82 77

# Euskadiko filmategia gas fabrikara?

Martxoaren 20an Udal Gobernu Batzordeak Euskadiko Filmategiari gas fabrikan 2.900 metro karratu ematea erabaki zuen, bertan filmategiaren egoitza berria egiteko. EAEko Ondare Industrialaren Elkartea, ordea, ez dago ados ebakiarekin, proiektuak ondare industriala kaltetu dezakeelakoan. Oraindik ez dago batere argi non egingo den egoitza berria. Argi dago, hala ere, Bizkaiko pasealekuko egoitza txiki geratu dela bertako 2.500.000 milioi metro pelikula, 5.000 liburu, 19.000 aldizkari eta 3.000 kartelentzako.


Martxoak 20

# Donostiako I. Antzerki Saria

Martxoaren 27an Antzoki Zaharra galaz jantzi zen, izan ere, I.Donostia Antzerki Saria banatu zen. Ttanttaka taldearen "Ozeanoko pianista" antzezlan arrakastatsuak jaso zuen saria, datorren urtean antezlan berria ekoizteko milioi t´erdi pezeta, hain zuzen ere. Antzoki Zaharra lepo zegoen eta jendetzaren artean antzerki munduko aurpegi asko. Taula gainean, berriz, Jose Ramon Soroiz eta Elena Irureta, besteak beste.


Martxoak 27

XANTI
JATETXEA
Anoeta pasealekua 30
Tel.: 943 457 436
Faxa: 943 452 036
20014 DONOSTIA






# Urumeako autobia bidea hartuta

Duela bi urte hasi zen autobiaren auzia, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu ofiziala aurkeztu zuenean. Handik gutxira, proiektu horrek kaltetutako auzotarren elkarteak Okendotegi egitasmoa aurkeztu zuen. Okendotegi egitasmoak alderdien politikoen gehiengoa lortu zuen Batzar Nagusietan. Bi urte hauetan jarrerak hubiltzeko saiakera ugari egin dira eta azkenik, apirilaren 4an akordioa gauzatu zen. Okendotegi eta proiektu ofiziala baztertu eta "Bikain" proiektua, aurrekoen bategitea onartu zen.



Apirilak 4




Apirilak 6

# Korrika, baina ez presaka

Apirilaren 6an, Ipar Euskal Herrian barrena ibili ondoren, Korrika Donostiara heldu zen. Altzatarrak izan ziren Korrikari ongi etorria ematen lehenak. Egia eta Parte Zaharra izan ziren kilometro gehien erositako auzoak. Bestalde, aurten Ziberkorrika jarri zen abian. Hari esker, atzerrian bizi diren euskaltzaleek kilometroak erosteko aukera izan zuten, esaterako, Leire Diaz eta Aizpea Leizaola ikasle donostiarrek. Presarik gabe, baina beti aurrera.

LARRAMENDI
ZERBITZU-ESTAZIOA



Olio aldaketa
3.390 pezeta

AVIA SHOP denda berria: sandwich beroak, labakoak, freskagarriak, garagardoak, ikatza eta kotxearentzako osagarriak.

Nafarroa hiribidea 5
Tel.: (943) 279211 eta (943) 286219 • Faxa: (943) 279890

Zorionak eta
URTE BERRI ON



Casa Urola
JATETXEA

Fermin Calbeton 20 • PARTE ZAHARRA
Tel.: (943) 423424 eta (943) 421175 • Faxa: (943) 423424

## Turismoak behera Aste Santuan

Aste Santuko oporren ondoren gurera etorritako turismoaren balorazioa egin zen. *"Ostatuak %50 bete dira, horrek esan nahi du iazko batez bestekoarekin alderatuz gero, turismoak lau puntu egin duela behera"*. Kote Villar Turismo zinegotziak apirilaren 19an eginiko adierazpenak dira. Zinegotziaren arabera, ezegonkortasun politikoa eta indarkeria ziren turismoaren gainbeheraren eragileak.



Apirilak 19



Apirilak 23

## Amara Berriko kultur etxea zabalik

Aurreikusitakoa baino hilabete batzuk beranduago, azkenik, apirilaren 23an Amara Berriko kultur etxea zabaldu zen Anoetako futbol estadioko solairu arteko lokal batean. Kultur etxeak Ernest Lluch izena du, eta 2.600 metro karratu ditu. Eraikitze lanek 210 milioiko aurrekontua izan zuten, eta bigarren fase batean kultur gunea zabaldu nahi da.

OGI BERRI
KALITATEA AURKITU
EGOITZA NAGUSIA: DONOSTI HIRIBIDEA 68, 26 POLIGONOA. ASTIGARRAGA.TEL: 943 552800

# Ilazki euskaltegiak mende laurdena

Maitzaren 10ean Ilazki euskaltegiaren 25.urtemugako ekitaldiak hasi ziren. Euskaltegiak Amara Zaharreko Landetxe Gau Eskolan eman zituen lehen urratsak, 7 irakasle eta 70 ikaslerekin. Ordutik hona, euskaltegiko kideek lan handia egin dute, eta egun 30 bat irakasle eta 600 ikasle ari dira. Konstituzio plazako euskaltegia antzindaria da Donostian euskararen irakaskuntzan. Zorionak!



Maitzak 10



Maiatzak 13

# EAJ-EA nagusi hauteskundeetan

Maitzaren 13an EAEko hauteskundeak egin ziren. Donostian, EAJ-EA koalizioak irabazi zuen auzo guztietan, Altzan salbu. EHk eta PSE-EEk beherakada nabarmena izan zuten, Legebiltzarreko aurreko hauteskundeekin alderatuta. PPk, aldiz, bost puntuko igoera izan zuen eta EBk 2 puntukoa. EAJ-EA koalizioa izan zen jaun eta jabe, 14 puntuko igoerarekin.






## Santa Klara uharte euskaltzalea

Maiatzaren 26an Euskaltzaleen Eguna egin zen Santa Klara uhartean. Aurreko bost urteetan AEKk antolatu zuen eguna, baina aurten, AEK ezezik Donostiako 47 talde biltzen dituen Batzen elkargunea aritu zen antolatze lanetan. Hitzordua arrakastatsua izan zen, izan ere, 500 lagun inguru bildu ziren uhartean gure altxor maitearen ohorez. Noiz hartuko dute euskal itsaslapurrek hiria?


Maiatzak 26


Maitzak 30

## Tabakalera eta San Telmo bidegurutzatuta

Maiatzaren 30ean Udalbatzarrak argi berdea eman zion Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak tabakalerari buruz sinatutako hitzarmenari. Tabakaleran nazioarteko kultur garaikidearekin lotutako gunea egin nahi da. Proiektua erabat zehaztuta ez dagoen arren, 8.000 milioi pezeta aurreikusi dira gune berrirako. Proiektuak bere egin ditu San Telmon Euskal Kulturaren Museoa egiteko hitzartutako dirulaguntzak. Beraz, San Telmo beste behin umezurtz geratu omen da.





FCC

Ubarburu pasealekua 18
27. POLIGONOA
MARTUTENE
Tel.: (943) 46.58.00

ESTOLDERIA, JARDINAK ETA HONDARTZEN GARBIKETA
ZABOR ETA PAPER-BILKETA
INDUSTRIA ALORREKO, ETA IKASTETXEEN GARBIKETA
KONTROLATUTAKO ZABORTEGIEN USTIAPENA

# Telefonia automatikoak 75 urte

Ekainaren 14an Donostiako telefono zentral automatikoa abian jarri zeneko 75. urtemuga bete zen. Zentraleko azpiegiturak San Martin kalean ipini ziren. Gauerdian jarri zen abian zerbitzu automatikoa Eibarrera egindako dei batekin. Lehen zentralita automatiko hark 75 urte bete dituen arren, martxan dirau, izan ere, Ingenieritza Eskolako irakasleek erabiltzen dute telekomunikazioaren oinarriak ezagutzeko.



Ekainak 14

Ekainak 17



# Zerga gutxiago Errege Katolikoetako dendarientzat

Errege Katolikoen kalean aparkalekua egin eta kalea oinezkoena bihurtzeko lanak martxoan hasi ziren. Hasieratik bertako dendari, tabernari eta auzotarrek obrek eragozpen ugari sortzen zituztela salatu zuten. Dendarien arabera, gainera, obrek eragindako anabasaren ondorioz, salmentek nabarmen egin zuten behera. Kexuak zirela eta, Udalak neurri aitzindaria hartu zuen ekainaren 17an: dendariontzako beherapen fiskala.

SOINU-ALAI ESKOLA
URTE BERRI ON
•Akordeoi kromatikoa
•Lengoaia musikala (solfeoa)
•Trikitixa (solfeoa jakinik ala jakin gabe)
•Pandereta •Musika tailerra
5 URTETIK GORA
Madril hiribidea 24 • Tel.: (943) 47.00.01 • Mugi.: 656 70 10 24

GOZOTEGIA
OiARTZUN
IZOZKITEGIA
Igentea kalea 2 • Tel.: 943-426209
Donostia

Zurrumurru
Kioskoa-News Stand-Edicola-Kiosko-Budka-Kiosk-Söluturm-Quiosc-Kiosque
Bretxa merkatal gunea - Bulebarra z/g
20003 Donostia. Tel: 943 427977

EGURRA
Sukalde altzariak
EGURRA
Donostia
Erakusketa: San Frantzisko 12 • Tel.: (943) 281098 • DONOSTIA
Fabrikazioa: Sukalde Altzariak • IBARRA • Tel.: (943) 691273 • ZIZURKIL

## Kontxako bidegorria aurrera

Bidegorriaren aurreproiektuak ika-mika ugari sortu zuen Mugikortasun Batzordeko kideen artean, baina azkenik, ekainaren 26an Udal Gobernu Batzordeak argi berdea eman zion Kontxako bidegorriaren aurreproiektuari, PP alderdiak proiektuaren aurka egin zuen arren. Behin betiko onespena urriaren 30ean etorri zen, eta PP alderdiak eta baita EA-EAJ koalizioak ere aurka bozkatu zuten. Hala eta guztiz ere, txirrindularien gozamenerako Kontxan bidegorria izango dugu datorren udan.



Ekaina 26



Ekainak 29

## Mendea Euskal Billerarekin

1901eko ekainaren 29an sortu zen Euskal Billera elkarte ezaguna. Garai hartan egoitza Fermin Calbetonen zegoen eta Paulino Goitia zen bertako presidente. Mende honetan elkarteak gastronomiaz gain, bestelako jarduerak bultzatu ditu: Irutxulo fanfarea, Kili Kili Eguna, San Sebastian eguneko danborrada... Egun elkarteak 250 bazkide ditu, guztiak gizonezkoak. Urtemugaren karietatik elkarteak liburua plazaratu zuen.

Etchola
Inmobiliaria
Tele inmobiliaria
Garaje, lokal eta etxebizitzen salmenta eta alokairua.
Karlos I etorbidea, 26 behea 20010 Donostia
Tel: 943 446400 / 656784408

arbelaitz
HERNANI, 29 • Tel.: (943) 291609
TXURRUKA, 4 • Tel.: (943) 421944 DONOSTIA

Decoraciones Gros
• Parketa eta dornadurak
• Gorpuzkera guztiko lurzoruak
• Hormetako estaldunak
Livos Produktu naturalak
(Pintura, argizari, olioak, etab...)
San Frantzisko, 19 behea Ø eta faxa: 943 27 85 05

IKAITZ
Kolon Pasealekua 21
20002 Donostia
Tel.: 943 29 01 24

# "Zakildegi" Antzoki Zaharrean

Uztailaren 1ean, Gay Harrotasunaren Egunaren haritik, "Zakildegi" gay zine zikloa egin zen Antzoki Zaharrean. Besteak beste, "Parto", "Done Ostia", "Making Off" eta gay zuzendariek eginiko bestelako film laburrez gozatzeko aukera izan zen. Hitzordua arrakastatsua izan zen, makina bat donostiar gerturatu baitziren Antzoki Zaharrera. Izango al du segida zikloak datorren urtean?



Uztailak 1



Uztailak 11

# Denda txikiak bultzatzeko neurriak

Uztailaren 11n Udalak eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioak denda txikiak bultzatzeko hitzarmena sinatu zuten. Donostian 3.598 dendari txiki daude eta 7.808 lagun ari dira sektore honetan lanean. Hitzarmenaren harira, Udalak eta Gipuzkoako Merkataritza Federazioak dendarientzako 50 ikastaro antolatzeko konpromisoa hartu zuten. *"Helburua merkatari txikien biziraupena bermatzea da"*, jakinarazi zuten federazioko kideek.






# Zipotz jaien hasiera zaratatsua

Uztailaren 9an hasi ziren Zipotz jaiak eta egun horretan bertan feriak ipini ziren Nafarroa Beherea plazan. Hurrengo egunean, ordea, Udalaren aginduz, feriak itxi behar izan ziren. Bi egun atzera eta aurrera ibili ondoren, azkenik, hilaren 19an feriak berriz ere zabaltzea lortu zuen Jai Batzordeak, hori bai, ordutegia murriztuta. Gauzak horrela, sinadura bilketa egin zen datorren urtean feriak izan daitezen.



**Uztailak 9**

# Arrantzale zaharrei omenaldia

Uztailaren 16an, Karmengo Amaren Eguna, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiaren ekimenez, 70 urtetik gorako Gipuzkoako 20 arrantzaleei omenaldia egin zitzaien kaiko San Pedro elizan. Donostiako 28 arrantzale ziren tartean. Kresalako dantzariek itsasoarekin lotutako dantzak eskaini zizkieten, urte luzez itsasoa bizibide izandako gizonei.

**Uztailak 16**






ESTANTERIAS perkar S.L.
SOLUCIONES DE ALMACENAJE
Nafarroa hiribidea 36
20013 DONOSTIA • Tel.: (943) 27 85 00 • Faxa: (943) 27 86 21
e-mail: perkar@euskalnet.net

JATETXEA BORDA

- Ezkontzak (150 lagunentzat), enpresa bazkariak, senitartekoen bilerak, agur-afariak... egin ahal izango dituzu.
- Musika doan bertako diskotekan.



Sorabilla auzoa z/g ANDOAIN • Tel.: (943) 59 28 60

## Argitu gabeko heriotza

Aldamar kalean izandako atentatuak samina eta kezka zabaldu zituen donostiarren artean. Parte Zaharreko Txioka tabernako komunean utzitako lehergailu batek eztanda egin zien eskuartean Maritxu Eraunzetamurgili eta haren biloba Jokini eta ondorioz, amona hil eta biloba oso larri zauritu zen. Ertzaintzak atentatua gertatu ondoren, hipotesi guztiak zabalik zeudela adierazi zuen. Espainiako Gobernutik eta PPtik kale borrokari edo ETAri leporatu zioten heriotza eta Ezker Abertzaleak, berriz, estatuaren gerra zikinari. Jostailuak nork utzi zuen ez da oraindik argitu.



Abuztuak 20

Abuztuak 20


## Rozanes Gaztelua babestu

Gure Gazteluak elkartea gazteluak, jauregiak, dorreak, harresiak eta bestelako eraikinak babestu eta berreskuratzeko helburuz jaio zen. Abuztuaren 20an elkarteak Aieteko Rozanes gaztelua bere horretan uztea eskatu zion Udalari. Gaztelua Udalarena da, eta Udalak eraitsi egin nahi du bertan hotela egiteko. Alkatearen arabera, eraikinak ez du aparteko balio artistiko eta historikorik. Elkartekoek, ordea, oso bestelako iritzia dute.

F. i. CASTRO
GAS & BEROGINTZA – ITURGINTZA
INSTALAZIOAK, KLIMATIZAZIOA
ZORIONAK
Tel.: 943 277 085 Faxa: 943 292 665

Aitor Lasa
GAZTATEGI

Aldamar kalea, 12 Tel.• Fax: 943 43 03 54
20003 DONOSTIA

## Hondartzak garbiago emisarioari esker

Emisarioa uztailean jarri zen martxan ofizialki, baina lehenago hainbat proba egin ziren. Udalak abuztuaren 24an plazaratutako datuen arabera, aurten ekaina eta uztaila bitartean, iaz baino 146.000 zabor kilo gutxiago jaso ziren uretatik. Jakina, itsas korronteek ere zerikusia dute. Egun Donostiako ur zikin guztiak kostaldetik 1.300 metrora isurtzen dira. Hala ere, Loiolako arazgailuko obrak ez dira 2003ra arte amaituko.


Abuztuak 24


Abuztuak 27

## Antiguako Gaztetxea kiskalita

Abuztuaren 27an ezezagun batzuek Antiguako Gaztetxeari su eman zioten. Sutea zela eta, Antiguako Gazte Asanbladako kideek manifestazioa egin zuten eta bertan Donostialdeko Etxe Okupatuen Batzarreko kideez gain, Altzako eta Intxaurrondoko Gazte Asanbladetako ordezkariak izan ziren. Antiguako gazteek bi urte zeramatzaten Seminario bideko gaztetxean.









## Porrontxo jaiek 20 urte

Irailaren 12an Porrontxo jaiak hasi ziren koadrilen ohiko jaitsierarekin. Aurten jaiok 20. urtemuga bete zuten. Ez dira beste asko bezala santu edo ama birjin baten inguruan sortutako jaiak, sudur handi bati lotutakoak baizik. Aurten ere giro paregabea izan zen: kontzertuak, antzerki emanaldiak, ziklokrosa, herri afaria... Datorren urtera arte itxaron beharko dugu Donostiako auzoetako jai ederrenez berriz ere gozatu ahal izateko. Pazientzia, lagunak!



**Irailak 12**

**Irailak 14**



## Poltsiko telefonoen antenekin adi

Irailaren 14an Udalbatzarrak poltsiko telefonoen antenei buruzko behin behiniko udal araudia onartu zuen. Hemendik aurrera hirian antena bat jarri nahi duten telefonia konpainiek baimena eskatu beharko dute Udalean. Orain arte, nahikoa zen obra txikien baimena izatea antena ipintzeko. Hala eta guztiz ere, ez da antenon kontrola eta erradiazioen neurketari buruzko neurririk hartu. Batasuna alderdiak eta Eguzkik Udalak kontrola zorroztea eta neurriak hartzea eskatu zuten.

OIHALAK KILOKA
KiLOKA
ORDENAGAILU BIDEZKO BORDATUAK
(Inizialak, izenak, marrazkiak, eta abar.)
SOINEKOAK ITZALKIAK TXUKADERAK MAINDIREAK
Artetxe Jenerala, D • GROS • Tel.: 943 28 07 56

Plastigaur s.a
POLIETILENO ATZERAGARRIZKO FILMEN FABRIKAZIOA
Ama Kandida etorbidea, z/g
20140 ANDOAIN
Tel.: 943 59 03 11
Fax: 943 59 00 48

ARROPA ETA DEKORAZIO NAUTIKOA
Nagusia, 14
Tel.: 943 424797
PARTE ZAHARRA

KOMUNIKAZIOAK CERVERA
• SEGURTASUN ELEKTRONIKOA • ALARMAK
• TELEBISTA • ZIRKUITU ITXIA
• KAMERA EZKUTATUAK • GRABAGAILUAK
• ATEAIN ETA BIDEO • ATEZAIN ELEKTRONIKOA
• ZENTRAL TELEFONIKOAK
ETA TELEFONIA MUGIKORRA
FERMAX DISTRIBUIDOR Y S.A.T. OFICIAL
Felipe IV. 8 • 20011 DONOSTIA
TEL: 943 456755/943 473615 FAXA: 943 473615
e-maill.: cervera@euskalnet.es

# Mikel Olaziregiren lehen Zinemaldi aldapatsua

New Yorkeko gertakariek Mikel Olaziregiren lehen Zinemaldia belztu zuten. Warren Beauty, Mila Sorvino, Anthony Lapaglia, Glen Close... hainbat artistek beren etxean geratzea erabaki zuten. Julie Andrews ere ez zen Donostia Saria jasotzera etorri. Beste hutsegiterik ere izan zen: Paco Ra-balena. Aktorearen heriotza kolpe handia izan zen antolatzaileentzat.



Irailak 20



Irailak 22

# Kotxerik Gabeko Eguna, ika-mikatsua

Irailaren 22an egin zen Kotxerik Gabeko Eguna, larunbatez. Iaz bezala ekimenak hiriko hainbat talderen kritikak jaso zituen, hala nola, Gipuzkoako Merkataritza Federazioa, Kalapie, Eguzki eta Batasuna alderdia. Gipuzkoako Merkataritza Federazioak, besteak beste, datorren urtean ekimena igandez izatea eskatu zuen. Udalak balorazio ona egin arren, donostiar askok kotxea hartu zuten batetik-bestera joateko.

Erosotasuna osagairik garrantzitsuena izan dadin

deitu **943 218 903** telefonora.



Artesanía en alimentación

Jenny

zure sukaldean onena bakarrik sartzen delako

# San Bartolomeko proiektua indargabetuta

Urriaren 12an EAEko Justizia Auzitegi Gorenak plazaratutako epaiak Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako San Bartolomeko ordenazio plangintza indargabetu zuen. Epaiaren arabera, bertako harresia, komentua eta bainuetxea babestu behar dira. Kaltetutako auzotarrek helegitea aurkeztea eskatu zioten Udalari, baina Udalak ez zuela helegiterik aurkeztuko jakinarazi zuen. Zer gertatuko da orain kaltetutako auzotarrekin? Horra hor, Udalak luze baino lehen argitu beharreko galdera.



**Urriak 12**

**Urriak 16**



# Gobernu Ituna haustear

Amaitzear dagoen urtean bi udal gobernukideen artean, PSE-EE eta PP, ezinegona izan da nagusi. Hainbat hirigintza proiekturekin sortu da desadostasuna: Kontxako bidegorria, San Telmo eta Tabakalera... Hala ere, urrian ezinegona areagotu egin zen, eta Gobernu Ituna haustear egon zen. Datorren urteko aurrekontuak piztu zuen Euskal Herriko mugak gainditu zituen afera. Azkenik, urriaren 16an alderdiok aurrekontua onartu zuten eta krisia amatutzat jo zen. Ikusi beharko.

ERLOJU TAILERRA
BITXIEN TAILERRA
URRE ETA ZILARREZKO BAINUAK
SEIKO - LOTUS
FESTINA - CITIZEN
PULSAR - CASIO
SWATCH - FLIK-FLAK
CALYPSO
ERLOJUTEGIA
BITXITEGIA
MIKEL

azurki
Altzariak
Dekorazioa
Secundino Esnaola, 9 Tel.: 943 27 32 50 - 27 94 50

San Telmoko
Goilarea
Pintxoak, Kaxuelak,
Miniatura Sukaldaritza
eta Platerekoa


Abuztuaren 31. kalea / 20003 DONOSTIA

Jai zoriontsuak
opa dizkizue!
Carrocerías Ussa
Txingurri pasealekua 15
HERRERA
Tel.: 943-39 16 13

# Añorgako errepide mozketak eztabaidagai

Aspaldi hasi ziren Añorgan N-1 errepidearen aurkako ekintzak, izan ere, errepideak auzoa bitan banatzen du, eta auzotarrek alde batetik bestera joateko nahikoa pasabide eta zebrabide ez dagoela salatu izan dute maiz. Aurten N-1aren aurkako ekintza ugari antolatu dira Añorgan, tartean errepide mozketak. Ildo horretatik, urriaren 26an Hiri Segurtasunerako Zuzendaritzak mozketak debekatu zituen. Astebete beranduago, ordea, EAEko Justizia Auzitegi Gorenak debekua bertan behera utzi zuen. Bien bitartean, añorgatarrek ez dutela etsiko diote.



Urriak 26




Urriak 30

# Euskaltzaleak kartzelara

Urriaren 30ean Euskal Herrian Euskaraz erakundeko lau gazte epaitu zituzten Donostian. Leporatu zitzaien hutsegitea? Hezkuntzak ikasleak euskaldundu beharra dagoela aldarrikatzeko kartelak ipintzea. Epaiketan gazteok euskaraz hitz egin nahi izan zuten, baina ezin. Argi dago euskaldunon hizkuntz eskubideak askotan zapaltzen direla gurean. Eskubideak eskubide, gazteok bi asteburu pasatu beharko dituzte gartzelan.

**Donostia,**
leku **berezia** batzarrak egiteko






inguru **paregabea**, une atseginak igarotzeko.

Ongi egokitutako azpiegitura hirian bertan, era guztietako bilerak antolatzeko:

Donostiako Teknologi Elkartegia

Miramar Jauregia

Kursaal Zentroa

DONOSTIA SAN SEBASTIAN

CONVENTION BUREAU

Reina Regente, 3. 20003 Donostia. Tel.: 943 481 466. Faxa: 943 428 122 e-mail: bureau@donostia.org www.ssconvention.com

## GAZTETXULOk urtebete

Azaroaren 12an GAZTETXULO Busa Donostiatik abiatu zen Euskal Herriko bazterrak bisitatzeko asmoz. Barruan Tentazioa ekoiztetxeko hiru aktore: Maider Yabar, Getary Etxegarai eta Jon Elola. Helburua: GAZTETXULO aldizkariak urtebete bete zuela gogora ekartzea. Eta bide batez, aitzakiarekin, gure herriak berotu eta gozatzea. Bost egunez herriz herri ibili ziren GAZTETXULOko komedianteak, aldizkaria hilabetero kioskoan dagoela gogorarazteko. Urtemugaren karietatik GAZTETXULOk 40tik gora opari zozketatu ditu.




Azaroak 12

Azaroak 16



## Kursaaleko lur trukaketa indargabetuta

Azaroaren 16an Espainiako Epaitegi Gorenak duela zenbait urteko erabakia berretsi eta Kursaalean egindako lur trukaketa indargabetu zuen. Udalak eraikitze etxe baten utzi zuen garai batean Groseko merkatuan zegoen lur-saila, eta ez zituen legez erabaki behar zituen babes ofizialeko etxeak eraiki. Hala ere, erabakiak ez du eragin handirik izango. Beste hainbeste gertatu da aurten Ilunbeko lur trukaketaren auziarekin.

I. Urruzola
AROZTEGIA
Oria etorbidea, 4 Behea
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 371200 •
Mugikorra: 610 413131 • Faxa: 943 376146

Landu
ARRETA PERTSONALIZATUA BIZILEKU, EGOITZA ETA OSPITALEETAN.
ZURE ARAZOAK KONPONTZEN DITUGU EGUN OSOZ ETA URTE OSOAN ZEHAR.
KONTSULTA GAITZAZU. AURREKONTU PERTSONALIZATUAK.
TEL: 943 444346/609338253-653700638 FAXA: 943 444347
San Martin 53, 4 2.bulegoa 20005 DONOSTIA
landuasistencia@terra.es


ANTIGUO autoeskola
STOP
Mikelete, 20 Tel.: 943- 21 65 51


ARGIEDER
ARGIZTAPENA
Madril hiribidea 30, atzekaldea Tel.: 943 460844

# Babestutako 5.400 etxe gehiago Donostian

Azaroaren 19an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok eta Donostiako alkate Odon Elorzak hirian sei urtetan babes ofizialeko 5.400 eraikitzea adostu zuten. Hitzarmenaren arabera, Udalak lurzorua jarriko du Eusko Jaurlaritzaren esku, babestutako etxeak egin ditzan. Zorionez, lurzorua ez da sustapen etxe pribatuen esku geratuko. Ez dezagun, ahaztu hala ere, Benta Berriko babes ofizialeko etxeen auzia konpontzeke dagoela. Ildo horretatik, bertako auzotarren elkarteak protestaldi bat baino gehiago egin du aurten.


Azaroak 19

# Ereinen zilar ezteiak

Azaroaren 20an Erein argitaletxeak zilar ezteiak ospatu zituen. 25 urte hauetan argitaletxeak hiru arlo jorratu ditu: literatura, hezkuntza eta saiakera. Horrez gain, "Ipurbeltz" haurrentzako aldizkaria argitaratzen du Ereinek. Etorkizunera begira, berriz, Erein Narratina saria jarri nahi dute abian bertako arduradunek. Ereinek idazle handien uzta ederra jaso du urte hauetan guztietan: Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi, Lourdes Oñederra, Yon Etxaide... aurrerantzean ere hala izan bedi.

Azaroak 20


euskararen donostia patronatua

**EUSKAL JAIAK**

**Irailaren 1etik 9ra**

**Donostia Bertsotan**
Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Saroi Jauregi.
Irailaren 1ean, 22.30etan
Trinitate Plazan

**Uga taldearen kontzertua**
Irailaren 1ean, 22.30etan
Konstituzio plazan

**Txotxongiloak**
Altxorraren patrika
Ziri-k taldea
Irailaren 5ean, 18.00etan
Konstituzio plazan

**Trikitilariak**
Koldo eta Imanol
Irailaren 7an, 20.30etan
Trinitate plazan

**Kantaldia**
Xabier Euzkitze
Irailaren 7an, 22.30etan
Konstituzio plazan

**ANTZERKIA KALEAN**

**Herri kirolak eta baserriko jolasak**
Irailaren 6an, 18.00etan
Justo Elizaran plazan
(Intxaurrondo)

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



Arrandegi kalea 4 eta 12
DONOSTIA

taberna jatetxea
TXISKUENE

Eguneko menuak
Afariak
Ospakizunak
Begiristain pasealekua 85
(Hospitaletako bidea) • Tel.: (943) 45.09.87

AUDIONICA
• Gorrentzako aparailuak.
• Soinu eta uraren aurkako tapoiak neurrira.
ENTZUMENEAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA.
Easo kalea 7, 1 esk.
Tel.: 943 430322
20006 DONOSTIA

NARRIKA
taberna
Narrika 16
Tel.: (943) 427327

# San Telmo dela eta, kritika

Herritar talde batek, abenduaren 4an, "San Telmo. Hondamendiak aurrera darrai" izenburuko agiria kaleratu zuen. Taldeak museoaren egoera salatu nahi izan zuen agiri honekin: gutxi erabiltzen ari dela zioen eta egun dituen ondasunekin, bertan Arte Ederretako Museoa eta Museo Historiko-etnografiko bat egin litekeela. Sinatzaileen artean hainbat idazle, historiagile eta artista zeuden, tartean Felix Maraña, Edorta Kortadi, Xabier Laka edota Carlos Aurtenetxe.



Abenduak 4



Abenduak 24

# Monpaseko lanetan segurtasun falta

Osalanek jakinarazi duenez, Monpaseko urazpiko emisarioa eraikitzeko lanetan segurtasuna legea urratu zen. 2000ko abenduan urpekari bat hil zela eta, Osalanek ikerketa egin zuen eta aurtengo abenduan ezagutarazi ditu ikerketaren ondorioak. Txostenak dioenez, besteak beste, langilearen ekipoan akatsak zeuden eta horrez gain, enpresak ez zuen arrisku azterketarik egin. Urtarrilean enpresako jabeak eta lanen zuzendariak epailearen aurrera joan beharko dute.

LAROGEI S.A.
AXULEIUAK
ZERAMIKA

ERAKUSKETA
San Martin 4
Tel.: (943) 429395
Faxa: (943) 425632
20005 DONOSTIA

ERAKUSKETA
Rekalde auzoa
Tfnoa.: (943) 373105
20009 DONOSTIA

BILTEGIA
Rekalde auzoa
Tel.: (943) 373040
F axa: (943) 362322
20009 DONOSTIA

INFORMATIKA ZERBITZUAK
SERVICIOS INFORMÁTICOS
Gure zerbitzu teknikoa ona eta azkarra da.
Marka guztietako osagaiak konpontzen ditugu.
Alfontso VIII.aren kalea 3, behea • AMARA BERRI
Tel.: 943-474451 • Faxa: 943-474452
ZERBITZU TEKNIKOA: 943-445067

## Santotomasetan, txostena

Santo Tomas hotza egokitu zitzaigun aurten donostiarroi, hala ere, hotzak ez zion egunari dizdira kendu. Milaka donostiarrek Parte Zaharreko kaleak hartu zituzten. Joxefina txerramak harro erakutsi zuen bere gorputza Konstituzio enparantzan. Hala eta guztiz ere, ohiko zozketak arazoak ekar diezazkioke Udalari. Eusko Jaurlaritzak Udalaren aurkako zigor txostena abian jarriko duela jakinarazi du, animaliaren zozketa eta erakustaldia dela eta. Antza denez, Animalien Babeserako EAEko Legeak jarduerok debekatzen ditu.



Abenduak 21



Abenduak 13

## Euskararen plana sustatzeko akordioa

Udalak eta Kontseiluak Euskararen Plan Orokorrari elkarrekin jarraipena egiteko hitzarmena sinatu zuten abenduaren 13an. Bi aldeak pozik agertu ziren akordioarekin. Honako hau, ordea, ez zen egun horretan sinatutako hitzarmen bakarra izan, bai Udalak, bai Kontseiluak akordio bana sinatu baitzuten Altzako Bizarrain elkartearekin. Azken bi hitzarmenon helburua Altzako Plan Estrategikoa abian jartzea da. Plan guztiok Donostian euskara gehiago entzuteko balioko ahal dute!

ZURRIOLA IKASTOLA IKE

"Guztiok, guztiona, guztiontzat"



ZURE SEME-ALABENTZAT NAHI DUZUN HEZKUNTZ PROIEKTU INTEGRALA

• Kalitatezko hezkuntza euskalduna emateko sortua.
• Gure Hezkuntza Proiektuak ikasleengan norbanakoaren autonomia, gizarteratze aktiboa eta euskal nortasuna sustatu nahi ditu.
• 2 urtetik, 18 urte arte ikasketak eskaintzeko, Barandiaran Lizeoarekin proiektua bateratua dugu.
• Gure irakasle taldea etengabe proiektu aurreratuenak eguneratzen ari da.
• Orientabide zerbitzua eta Laguntza gela.
• Zerbitzu osagarriak: jangela (ikastolan prestatutako janaria), garraioa, orduz kanpoko jarduera ugari, Musika Eskola, Antzerki Eskola, udako taldeak eta kanpamentuak, gurasoentzat euskarako klaseak, mintzalagunak...

ATEGORRIETA-GROS

Tel.: 943 28 72 32-943 28 74 11-943 27 25 87/ Faxa: 943 32 00 62/e-mail: zurriola@ikastola.net/ategorrieta@euskalnet.net

## 10.000 korrikalari



Azaro hasieran jokatutako Behobia-Donostia lasterketak ia 10.000 lagun bildu zituen. Bigarren urtez jarraian, afrikar bat nagusitu zen gizonezkoen artean: Philip Rugut. Emakumezkoetan, berriz, Rocio Riosek lortu zuen garaipena. Aurtengoan udaberrian bihotzekoak jota zendutako Diego Garcia azkoitiarrari omenaldia egin zitzaion. Behobia-Donostian ezezik, afrikarrak maratoian ere jaun eta jabe izan ziren: gizonezkoetan Samson Kandie nagusitu zen, eta Anne Kosgey emakumezkoetan.

## Partida handiak... eta eztabaida urte bukaeran



Aurten pilotazaleek goi mailako partidak ikusi ahal izan dituzte Atano III. frontoian. Udaberrian Goñi III.ak eta Asier Olaizolak binakako txapela jantzi zuten Alustiza eta Beloki mendean hartuta. Buruz buruko txapelketaren finala ere Donostian jokatu zen, eta orduko hartan Beloki Eugiri gailendu zitzaion. Urte amaieran, baina, polemika izan da nagusi. Izan ere, lau t'erdiko txapelketaren finala Donostian izatekoa zen, baina azken unean, enpresek Gasteizen jokatzea erabaki zuten.

## Poza Castro Urdialesen eta etsipena Orion



Aspaldi ez bezalako istiluak izan ziren aurten Kontxako Banderan. Irailaren 2an, lehen igandean, Oriok zortzi segundutik gora atera zizkion Jose Luis Kortak gidatutako Castrori. Bigarren igandean badia barruko azken txanpa ametsgaizto bilakatu zen oriotarrentzat. Korta zakur-zaharraren gidaritzapean, Castrok Orio atzean utzi eta ehunenekoei esker bandera eskuratu zuen. Oriok Kortaren portaera salatu zuen epaimahaian, Ortzaikakoak beren ibilbidea oztopatu zuela argudiatuz. Alferrik.

## Ametsgaizto amaigabea



Realak itxaropentsu ekin zion 2001. urteari. Toshack-en agindupean, txuri-urdinen jokoak hobera egin eta Realak Lehen Mailari eustea lortu zuen. Azken partidan jai giroa nagusi izan zen Anoetan, Osasunak ere mailari eutsi baitzion, Realak "oparitutako" puntuei esker. Irailetik hona, ordea, ez da giro Donostian, Toshack eta bere mutilak jaitsiera postuetatik atera ezinean baitabiltza.


WARNER
LUSOMUNDO
SOGECABLE
CINES



Zatoz eta murgil zaitez gure mundu magikoan
2002.urtean ere filme onenak
eskainiko dizkizuegu

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON



INFORMAZIO ASKO dugu zuri emateko

# Telefono Jakingarriak

**UDALETXEA**
943 48 10 00
**INF. (dohain)**
900 40 05 82

**SUHILTZAILEAK**
LARRI. HIRIA. 080
INF. 943 46 46 09

**SOROSPEN ETXEA**
943 44 06 33

**KULTUR ETA TURISMO EKINTZETXEA**
943 48 11 66
http://www.paisvasco.com/donostia

**UDALTZAINGOA** LARRI. 092
943 48 13 20
943 48 13 22

**KONTSUMITZAILEAREN BULEGOA**
943 45 83 75
943 45 16 65

**IBILGAILUEN GORDELEKUA**
(garabiauto) 943 32 06 58

**EUSKARA PATRONATUA**
943 42 47 17

**GAZTEDIAREN ATERPETXE ETA KANPINEN UDAL PATRONATUA**
943 31 02 68

**MUSIKA HAMABOSTALDIA**
943 48 12 38
943 48 12 39
http://www.donsnsn.es

**JAZZALDIA**
943 48 11 79
http://www.jazzaldia.com

**ETXEBIZITZAREN UDAL PATRONATUA**
943 48 17 65
943 48 17 66

**DONOSTIAKO UDALA**
http://www.donsnsn.es

**UDAKO IKASTAROAK**
943 21 95 11
http://www.sc.ehu.es

**DONOSTIAKO NAZIOARTEKO ZINEMALDIA**
943 48 12 12
http://www.sansebastianfestival.com

**DONOSTIA KULTURA**
943 48 11 50
http://www.donostiakultura.com

**CONVENTION BUREAU**
943 48 14 66
http://www.ssconvention.com

**KIROLETAKO UDAL PATRONATUA**
943 48 18 50

**DONOSTIAKO HIPODROMOA**
943 37 16 90

**MIRAMAR JAUREGIA**
943 21 90 22

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
943 48 11 51

**ANOETA ESTADIOA**
943 48 18 65
943 48 18 75

**KURSAAL ELKARGUNEA**
943 00 30 00

**MUSIKA BULEGOA**
943 48 11 79
http://www.jazzaldia.com

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



## Handien artean handiena



Aurtengo klasikan egun bateko lasterketetan iaioak diren txirrindulariak nagusitu ziren. Casagrandek, Rebellinek, Bellik eta Jalabertek Jaizkibelgo igoeran ihes egin eta Bulebarrean elkarren kontrako lehia ikusgarria izan zuten. Helmugan Laurent Jalabert nagusitu zen, azken urteetan txirrindularitza munduan garaipen gehien lortu dituen gizona, alegia. Hain zuen, Donostiako klasika zen Jalabert-ek sekula irabazi gabeko txapelketa bakarrenetako bat.

## Proiektu berria Gaskan

Urte luzez Askatuak izan da Gipuzkoako saskibaloiaren ordezkari nagusia. Aurten, baina, Gipuzkoa Basket sortu da Miguel Santos kirol sustatzailearen zuzendaritzapean. Taldeak Askatuak-en lekua hartu du eta LEB 2 mailan ari da. Lehen denboraldi honetan, donostiarrak sailkapenaren erdialdean dabiltza. Epe ertainera, Gaskako harmailak lepo ikustea eta taldea mailaz igotzea da proiektuaren bultzatzaileen helburua.

## Persian Ruler urrezko zaldia

Abuztuaren 15a, Zubietako zalditegian Urtero urrezko Kopa jokatzen den eguna, aurtengoan sargoritsua izan genuen oso. Ekaitza arriskua egon arren, zalditegiko harmailak lepo bete ziren denboraldiko lasterketarik garrantzitsuenaz gozatzeko. Etxeko Ehun zalditegiko Jafar zen faboritoa, baina azkenean Persian Ruler eta Illunbe gaztearen arteko norgehiagoka estua izan zen helmugan. Alde txikiaz, baina Persian Rulerrek irabazi zuen Urrezko Kopa.



## Galdutako maila berreskuratu nahi



2001.ak itxaropena berpiztu du errugbizaleen artean. Bera-Berak galdutako maila berreskuratu du, eta Ohorezko B Mailan dihardu berriro. Aurtengo denboraldirako goi mailako helburua jarri diote Bera-Berakoek beren buruari: Lehen Mailara igotzea. Bera-Berak egindako balentriari Atletikorena gehitu behar zaio, honek ere mailaz igotzea lortu baitzuen ekainean bukatutako denboraldian.

BEGIRISTAIN
INMOBILIARIA
ASKATASUNAREN HIRIBIDEA 7, 3D
20004 DONOSTIA
TEL: 943 428282
FAXA: 943 424923
POSTA ELEKTRONIKOA: info@begiristain.com

kutxa
gizarte-ekintza
obra social












# Ibaeta Motor, S.A.

**Ibaeta • DONOSTIA** **Tel.: 943 31 60 20**
**www.citroen.es**

ER-0817/2/01

CERTIFIED IQNet QUALITY SYSTEM




## Etorkizun handiko piraguistak

2001ean Maria Eizmendik piraguismoa uztea erabaki zuen. Zalantzarik gabe, Eizmendi izan da Donostiak azken urteotan emandako piraguistarik onena. Dena den, hainbat lagunek hartu dute Maria Eizmendik utzitako lekukoa. Esaterako, Jon Ergüin munduko onenekin ari da ur lasterren txapelketan. Bestalde, Donostia Kayak elkarteko neska-mutilek dominak irabazi dituzte parte hartu duten nazioarteko txapelketa guztietan. Meritu handia da, denak 20 urtetik beherakoak direla kontuan hartuta.



## Zorionak Donosti Cup!

Uztaila hasieran Donostia futbolari gazteen topaleku bihurtu zen berriro. Munduko bazter guztietatik etorritako neska mutilak baloiari ostikoka aritu ziren Donosti Cup txapelketaren 10. edizioan. Edizio guztiotan futbolarien harrobi ezezik, hainbat kulturetako gazteen topagune ere bihurtu da Donosti Cup. Esate baterako, Xabi Alonso edota Mikel Arteta txapelketa honetan aritu ziren goi mailara iritsi baino lehen.

## ET-ren jauzi ikusgarriak




Azaroaren 1ean Belodromoak gainezka egin zuen motorzale trebeenak gertutik ikusteko. Superkrosaren hirugarren edizioa izan zen aurtengoa, eta iaz ez bezala, ET goitizenez ezaguna den Edgar Torronteras gurean izan genuen. Kataluniako mutila oso iaioa da jauzi txapelketetan, eta Euskal Herri osotik etorritako ikusleak aho bete hortz utzi zituen.

## Abenturak itsaso zabalean




Urtarriletik martxora bitartean, Kirolgi itsasuntzia eta Cadiz-Habana estropadan parte hartu zuen taldea izan genituen protagonista. Hamaika oztopo gainditu behar izan zituzten tripulatzaile gipuzkoarrek Habanako kaira iristeko. Urrian Euskadi untziak hartu zuen lekukoa, munduko estropada zailenari ekin zion, Xabier Agote eta Urko Mendibururen eskutik.

* * * *
HOTEL
AMARA PLAZA

Kalitatea da gure apustua



amaraplaza.com

HOTELES SILKEN

Pio XII,7 Tel. 943 46 46 00 Fax. 943 47 25 48 20010 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

# DONOSTIA KULTURA

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DONOSTIA KULTURA

## ANTZERKIA

**"Amor tres delicias", Rafael Mendizabal**
Antzoki Zaharra • Urtarrila 4-6
4an: 20:00; 5ean: 20:00 + 22:30; 6an: 19:30

**"Spingo", Yllana Teatro**
Antzoki Zaharra • Urtarrila 9-13 • 20:00

**"El gato manchado y la golondrina sinhá", El retablo**
Lugaritz Kultur Etxea • Urtarrilak 12 • 18:00

**"Dulce puta", "Sobre los prejuicios del tabaco", Itziar Lazkano, Ramon Barea**
Lugaritz Kultur Etxea • Urtarrila 25-27 • 20:00

**"Txio-txioka", Taun-taun**
Antzoki Zaharra • Urtarrilak 27 • 18:00

## ZINEMA

**NOSFERATU programazioa: Lars von Trier**
Antzoki Zaharra • 20:15

**"Orchidégartneren", "Menthe - La Bienhereuse", "Nocturne", "Befrielsesbilleder"**
Urtarrilak 23

**"El elemento del crimen"**
Urtarrilak 30

**HAUR ZINEMA**
Lugaritz Kultur Etxea • 17:00

**"Buenas noches, señor Monstruo"**
Urtarrilak 26

## MUSIKA

**Ernest Dawkins (Jazz)**
Egia K. E. • Urtarrilak 22 • 20:30

**GAZTEMANIAK: Godspeed You Black Emperor!**
Egia K. E. • Urtarrilak 26 • 21:00



## "Amor tres delicias"



## "El elemento del crimen"

Hemen ere salgai:
Servikutxa + Telekutxa (943.41.12.00)

DONOSTIA KULTURA

%10eko deskontua
ikuskizun guztietarako

Informatu zaitez
**943 48 11 50**

# 2000ko protagonistak

2001. urteari gainbegirada ematerakoan, zenbait izen azpimarratu behar dira. Haiek izan dira aurtengo protagonistak Donostian: artistak, politikariak, zinegileak... Batzuk hil zaizkigu, beste batzuek nabarmentzeko lana egin dute, sariak jaso dituzte beste zenbaitek... Datozen orrialdeetan 2001eko pertsonaiak aurkituko dituzue. Ez daude denak, baina hemen bildutako guztiek aipamena merezi dute.

## Enkarni Genua

Bi emakume izan ziren protagonista aurten Donostia Hiria literatur sarietan: Enkarni Genua donostiarra eta Itziar Rozas lasartearra. Genua "Ostiralero afaria" lanarekin nagusitu zen euskarazko antzezlanen atalean. Donostiarrak, "Erreka Mari" lana plazaratu zuenetik hona, 15 obratik gora idatzi ditu. Horrez gain, aurten bere senarra Manolo Gomezekin Txo-txongilo taldea sortu zueneko 30. ur-temuga bete da. Urte hauetan guztietan, bikoteak Aita Barandiarenek eta Resurreccion Maria Azkuek bildutako ipuinak zabaldu ditu gure haurren artean. Urte askotarako.





## Francisco Escudero

Francisco Escudero (Donostia, 1913) Donostiako Musika Kontserbatorioan hasi zen musika munduan. 1931n Madrilera jo zuen ikastera, eta handik Frantziara. Gerra Zibilean bertan erbesteratu zen. 1945ean Espainiako Musika Saria erdietsi zuen, eta 1961ean Donostiako Kontserbatorioko zuzendari izendatu zuten. Aurtengo Musika Hamabostaldiak kontzertua eskaini zion maisuari. Horrez gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Escuderoren bilduma grabatu zuen. Hori gutxi balitz, bezala, Jose Mari Agirrek musikariari buruzko dokumentala egin zuen.

DonostiGas

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

Instalatu Gas Naturala, etenik gabe hornitzen den energia, erosoa, garbia eta ekonomikoa

Tel.: 943 44 50 90 • 91



## Virginia Imaz

Pailazoak Cirque de Soleil ospetsuan eman zituen azken bi urteak, eta 2001eko hasieran etxeratu zen. Iritsi bezain laster Oihulari Klown taldearen sortzailea lanean hasi zen. Eta aurten ere lan asko izan du egiatarrak. Uztailean bere azken lana estreinatu zen Antzerki Ferian: "Ogibidez printzesa". Udazkenean, berriz, "Banbulo" Bernardo Atxagaren pertsonaiaren larruan sartu zen, izen bereko antzezlanean. Horrez gain, Blanca Zarageta, Jose Luis Gascon eta hainbat taldetako kideekin "Mediklown" EAEko erietxeetan animazio saioak egiteko elkartea sortu zuen.

## Martin Berasategi

Parte Zaharrean jaiotako sukaldariak Michelinen hirugarren izarra eskuratu du. Hortaz, Lasarteko jatetxea munduko onenen artean dago. Izan ere, jatetxe gutxi batzuek besterik ez dituzte hiru izar mundu osoan, eta haien artean, bi donostiarrenak dira, Juan Mari Arzakena eta Martin Berasategirena. Martin Berasategi gaztea da, baina hala ere, azken urteotan sari asko irabazi eta sona handia lortu du. Lasartekoaz gain, beste jatetxe batzuk ere baditu, Bilboko Guggenheim Museoan eta Donostiako Kursaalean, adibidez.













## Miren Azkarate

Amara Berrin bizi den euskaltzaina Hezkuntza eta Kultura sailburu izendatu dute aurten Ibarretxeren gobernuan. Miren Azkarate irakasle eta EHUko errektoreorde ere izana da. Argia astekarian egindako elkarrizketan, EAEko Hezkuntza eta Kultura sailburuak adierazi du euskararen militante izaten hilko dela. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Biziberritze Plana, Kontseiluaren Plan Estrategikoa eta udalen planak osagarriak direla esan du eta erakunde bakoitzari zer dagokion zehaztu beharra dagoela.

## Julio Medem

Ezin zitekeen bestela izan. Julio Medem zine zuzendari donostiarrak abuztuan estreinatu zuen "Lucia y el sexo" bere azken lana, eta dudarik gabe, horixe izan da aurten gure hirian zeresan gehien eman duen filmeetako bat. "Los amantes del círculo polar" bikainaren ondoren, Medemek unibertso propioa eraiki du berriro ere, ikuslea metafora-irudiez jositako amodiozko istorioan barrena eramanez. Medemekin beti gertatu ohi den bezala, zinemazaleen artean ez zen adostasunik izan, filma epaitzerako orduan. Batzuek maisulantzat jo zuten, erdibidean geratutako istorio handinahitzat besteek.





## Maialen Lujanbio

Abenduaren 16an, bertsozaleek berdindu ezinezko uneak bizi izan zituzten Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean. Jakina denez, Andoni Egañak hirugarren aldiz jantzi zuen txapela, baina zarauztarrak inoiz baino hobe aritu behar izan zuen buruz buruko azken txanpan Maialen Lujanbio mendean hartzeko. Duela lau urte, bertso txapelketen historian mugarria ipini zuen Hernanikoak, final baterako inoiz sailkatutako lehen emakumezkoa izan baitzen. Lau urteren ondoren, belodromoan bildutako guztien arnasa eta animoa jaso zuen Lujanbiok, eta bertso gogoangarriez erantzun zion animo horri.

IRATI

Egur tratamendua:
· Termita, pipia, sitsa...
Desinfektaketa:
· Labezomorroak, euli, txingurri...

Desarratoiketa
Desinsektuketa

TRATAMENDU BERMATUAK

Tel.: 943 301011 · Fax: 943 300460
Gudarien Etorbidea z/g 20140 Andoain
e-mail: irati@dfonet.com

BATERIAS LEUN S.A.L.
"Bateria industrialak"
NAFARROA, GIPUZKOA ETA ERRIOXAKO BANATZAILE BAKARRA

Bidebitarte lantegi 124
15. lokala, 26 poligonoa
Tfnoa.: (943) 33 01 81 ASTIGARRAGA

Grupo Tudor

# GASTRONOMIA GIDA

**UGALDETXO**
Euskal sukaldaritza
Ereñozu
Goizueta bidea (Hernanitik 9 kilometrotara)
Tel.: 943 550 240

**Atxega Jauregia**
HOTEL
OSTATUA
Aitzezarra 1 Usurbil 20170
Tel.: 943 371 150

Jatetxe-Erretegia
BAR CASA GANDARIAS
SAN JERONIMO, 23
ABUZTUAREN 31, 25
Tel.: 943 42 81 06 943 42 63 62

**ATALAIA**
• Ezkontzak (300 lagunentzat lekua)
• Elbarrituentzat egokitua
• Txingudi errotondako sarreran
Aritz Ondo 69
Tel.: 943 63 55 18
Irungo Bentak

**ETXEBERRI JATETXEA**
*EZKONTZAK • JAUNARTZEAK • BATAIOAK*
Aparkalekuak eta haurrentzako jolastokia
Lezotik Gaintxurizketa bidea
Tel.: 943 52 98 89 Lezo

Jatetxea
**ETXE - NAGUSI**
Haragietan eta arrainetan adituak
Etxean egindako postreak
**IGELDO** • Tel.: (943) 216502

**Larre**
Taberna - Jatetxea
Larrekoetxe bidea, 10 - Tels. 943 36 10 12 / 943 36 04 80
20160 LASARTE-ORIA (Gipuzkoa)

Zumeta Jatetxea
**TXOKOALDE 34**
**20170 USURBIL**
**943 362713**
ASTEARTE ETA ASTEAZKEN GAUA ITXITA

**Juanito Kojua** JATETXEA
Arrain eta itsakietan adituak
Kaia 14, 20003 Donostia
Tel. 943 420180 943 428456
Faxa: 943 421871

**BUENA VISTA**
EUSKAL SUKALDARITZA
KARTA ZERBITZUA
EZTEI ETA OTURUNTZA MENUAK
**Balenziaga pasealekua 42 • IGELDO**
**• Tel.: (943) 210600**

Tel.: 943 36 27 35
**TXIKIERDI**
**JATETXEA**
**TABERNA**
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
TXIKIERDI AUZOA USURBIL

AITA MARIn
begietatik jaten da...
AITA MARI
ikusientzundastu
Portu kalea 23 DONOSTIA
**Tel.: 943 43 13 59**
(badiara begira)



## Oreka TX

Igor Otxoa eta Harkaitz Martinez añorgatar gazteek osatutako Oreka TX taldeak maiatzean plazaratu zuen "Quercus endorphina" izeneko lehen diskoa. Txalaparta doinuez betetako disko hau Kepa Junkera soinujole bilbotarrak ekoitzi zuen, eta kolaboratzaileen artean musikari handiak aritu ziren, Michel Bordeleau, Phil Cunningham eta Mikel Laboa, kasu. Añorgako taldeak hamaika kontzertu eman ditu aurten, Junkera eta Cunningham-ekin, edota Oskorri eta Hevia-rekin, besteak beste. Azaroaren 11n, esaterako, kontzertu jendetsua eman zuten Kursaalean.

## Momo jainkoa

Maribel Bobueta izan genuen aurtengo inauterietako Momo jainkoa. Mozorrozale amorratu hau Alaiak konpartsa umoretsuarekin atera zen kalera. Inauterietan Donostian garai bateko giroa egon dadin, formula polita proposatu zuen Bobuetak IRUTXULOko orrialdeetan: *"Gazteak gero eta gutxiago animatzen dira. Ez da inauterietan soilik gertatzen, festa guztietan baizik. Horrexegatik, gurasoek haurren eredu izan behar dute, beraiek ere festan parte hartuz. Modu horretara haurrak inauterietan irtetzera animatuko dira"*. Horrela izango ote da 2002ko inauterietan?






## Pablo Malo

Zalaparta askorik egin gabe, apaltasun handiz, Pablo Malo zine zuzendari donostiarra gogotsu ari da lanean. "El angel de marmol" bere lehen film laburrarekin zenbait sari jaso ondoren, lau urteko etenaldia hautsi eta "Jardines dehabitados" izeneko film laburra egin zuen Parte Zaharreko gazteak. Film honek arrakasta handia izan du, nazioarteko zinemaldietan jasotako bederatzi sariak horren lekuko. Unax Ugalde, Andoni Erburu eta Maribi Bilbao aktoreak protagonista dituen film labur hau irailaren 25ean eskaini zen Donostiako Zinemaldian Euskal Zinearen Egunean.

Otaegui
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
1886-an sortutako artisau gozodenda
ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
Secundino Esnaola, 2
Tel.: 943 276933
Narrika, 15
Tel.: 943 425606
Matia, 3
Tel.: 943 218089
Garibai, 23
Tel.:943 421045

multauto
Trafiko isun guztiak hel egiten ditugu. Baita TAOisunak ere
Zarautz hiribidea, 78
Tel.: 943 313 399
943 312 998
FIDELAN
Aseguru mota guztiak

Arantxa Gonzalez
LURRINDENDA
EDERTASUNA
OPARIAK
MASAJEAK
Zabaleta kalea 7
Tel.: (943) 28 65 94

LOCALIA tv
GIPUZKOA

*Donostiako Telebista Berria*

*Telf.: 943 42 12 15 e-mail: localia@canalgipuzkoa.com*



## Jesus Maria Alkain

Jesus Maria Alkain (Donostia, 1922) Antiguan jaio eta bertan bizi izan zen, emazte Mari Carmen Dominguezekin ezkondu zen arte. Ekonomia Zientzietan lizentziatua, Donostiako alkate izan zen 1979tik 1983ra (EAJ). Horrez gain, Pakeako zuzendaritzan aritu zen hainbat urtez. Alkain aurtengo uztailaren 1ean hil zen, 79 urte zituela. Hileta elizkizunetan udal agintariak zein EAJko ordezkariak bildu ziren alkate ohia agurtzeko. Omenaldi gisa, Loiolan egitekoa den auzo berriko kaleetako bati bere izena ematea erabaki zuen Udalak.

## Vicente Ameztoi

Vicente Ameztoi (Donostia, 1946) azaroaren 6an hil zen. Ameztoik osaba Jesus Olasagasti margolariarekin eman zituen lehen urratsak. 1967an egin zuen bakarkako lehen erakusketa. 1970ean, berriz, Euskal Pinturaren V. Sari Nagusia irabazi zuen, eta besteak beste, "Euskadi Sioux" aldizkariaren sortzaileetako bat izan zen. 1990ean Artelekuk artistaren ibilbidea bildu zuen "Karne & Klorofila" erakusketan. 1993an, Remelluriko ermitan mural bat egiteko enkargua jaso zuen. Iaz Koldo Mitxelenak bere lanei buruzko erakusketa antolatu zuen.





## Irene Laffitte

Irene Laffitte (Donostia, 1931) Donostiako Arte eta Ofizioen eskolan eta Madrilgo Arte Ederren eskolan hasi zen arte munduan. 1959an Gipuzkoako Artista Berrien Saria irabazi zuen. Bi urte beranduago lehen erakusketa egin zuen Madrilen, eta ondoren, Parisera joan zen bizitzera. 1970ean Irenek Ordiziako Areta baserria erosi, eta oilarren koadro ezagunak egiten hasi zen. 1982an, ordea, sute batek baserria kiskali zuen. Dena den, Irenek ez zuen etsi eta lanean jarraitu zuen. Bere azken bi erakusketak Parte Zaharreko Kai eta La Colchoneria tabernetan egin zituen. Pintore donostiarra abenduaren 13an hil zen.

EROSKI
EROSKI GARBERA EROSKI
EROSKI MERKATALGUNEA EROSKI

# ETXE KONPONKETARAKO GIDA



**DonostiGas**

Instalatu Gas Naturala, etenik gabe hornitzen den energia, erosoa, garbia eta ekonomikoa Tel.: 943 44 50 90 • 91

---

## ARGILAN C.B.

- Elektrizitate lanak
- Berrikuntzak orohar
- Aurrekontuak dohain
- Salneurri politak
- 125 v. -220 v. aldaketak
- Atezain automatikoak

Karmengo ama 52, 12. lokala
Tel.: 943 28 86 66 eta 629 -43 68 22

**Elektrizitatea** (instalazioak, konponketak)

---

## Persianas ALDAMAR

- *Aluminiozko pertsianak isolamendu Tekniko-akustikoarekin*
- *Pertsiana autoblokanteak*
- *Motoredun igoera sistemak*

*Aldamar 22 behea Tel.: 943 29 27 04 - Faxa: 943 43 14 91*

**Pertsianak** (konponketa, salmenta)

---

## SUPER SONIDO

**21.900 pzta. BIDEOA + CANAL PLUS**

**Urbieta 40**

**Etxe tresna elektrikoak**

---

## LEORBIDE contratas, s.l.

Fatxada eta estalkien berriztapena eta birgaitzea
Etxebizitza eta lokalen erabateko berrikuntza
Hezetasunen tratamendua eta iragazkaitasuna
Arkitekto tekniko kolegiatua

**BERRIKUNTZA ETA BABESA**

Aitzkorri 11 behea
Tel.: 943 21 66 10 • Faxa: 943 21 70 00

**Fatxadak • Teilatuak**

---

## Uratz SUKALDEAK

Sukaldeetarako osagarriak

**Bermingham 11, behea**
**Tel.: 943 29 07 66**

**Sukaldeak**

---

## Axuleiuak eta zoladurak

**paviberri**

ERAKUSKETA: Pedro Egaña 3, behea
Tel. eta faxa: 943 46 87 36
BILTEGIA (POLIMARMOLA):
Ergobia auzoa z/g ASTIGARRAGA
Tel.: 943 55 45 91 • Faxa: 943 33 14 77

**Baldosak**

---

**DIRU KUTXAK, ZERRAIAK ETA GILTZAK EGITEN ADITUAK**

24 ORDU

## EJARRETA

Larrialdiak: 907 523333

Usandizaga, 16 behea ☎ 943 27 18 14
Miguel Imaz behea ☎ 943 29 16 81
DONOSTIA FAXA: 943 28 43 84

**Ateak • zerrailak • giltzak**

---

**DONOSTIA**

CRIVASA

ARBITRAIARI ATXIKIA
KONTSUMO ARBITRAIA

Tel.: 943 29 20 80
Faxa: 943 29 31 76
**Ronda 5**

## KRISTALDEGIA Vascongada

**Kristaltegia**

---

## kinttalko eraikuntzak s.l.l.

**ESPEZIALITATEA:**

- ZERAMIKA
- BALDOSA
- BARRUKOETAN

**Igeltseritza orohar**

# Gurean esana

Hamabi hilabeteotan asko izan dira gurean elkarrizketatutako lagunak: zinegotziak, hainbat elkartetako ordezkariak, kazetariak, idazleak, mota guztietako profesionalak... Hona hemen haietako zenbaitek IRUTXULOn esandakoa.



Ricardo Burutaran
EA-EAJko zinegotzia

**"Aholku batzordeak Euskararen Plana kontrolatu beharko luke"**

*"Euskararen Plan Orokorrean ondo legoke aholkularitza batzordea sortzea. Batzordea hainbat sektoretan euskararen alde lan egiten duten taldeen ordezkariez osatuko litzateke. Batzordeak planaren aplikazioa kontrolatu beharko luke. Hemen gauzak onartu egiten dira, baina kontrolik ezean, gauzak paper hutsean gera daitezke".* (2001-01-05)



Nekane Benavente
Marrumako Danbor Nagusia

**"Alardeaz hitz egiten dugu, baina gure etxean berdin jokatzen da"**

*"Elkarteek emakumeak onartu beharko lituzkete. Ez onartzea diskriminazioa da. Alardea kritikatzen dugu beti, baina gure etxean antzera jokatzen da".* Ildo honetatik, bandera igoera eta jaitsiera emakumerik onartzen ez duten bi danborradek egiten dutenez, Benaventek bi ekitaldiotan danborradak txandakatzea nahi luke: *"hori ezinbestekoa da emakumeek protagonismoa eskura dezaten".* (2001-01-19)



Eneko Dorronsoro
EHNEko
zuzendaritzako kidea

**"Euskal Herrian kontsumitzen den haragiaren %40 besterik ez da hemen ekoizten"**

*"Euskal Herrian kontsumitzen den haragiaren %40 besterik ez da hemen ekoizten. %40 horretatik, bestalde, %10 besterik ez da Eusko Labelduna. Horrek argi uzten du zerbait gaizki dagoela. Gure ustez, politika horrek ez du hemengo haragi-ekoizle guztiak integratzea lortu. Haragiarekin lotutako politika orokor ona izan beharrean, Eusko Labelak dagoen ildo horretatik jarraitu eta komertzializatu egin du".* (2001-02-02)



Nerea Iriarte
Bertatik Bertara-ko
aurkezlea

**"Ez zait batere gustatzen egiten dugun telebista"**

Nerea Iriartek ez du atsegin egungo telebista eredua: *"Audientzia eta entretenimendua bezalako kontzeptuak asko erabiltzen dira, eta esaten da jendea ez dela aspertu behar... Baina hori gauza bat da, eta bestea ikuslegoa tontoa dela pentsatzea, eta zaborra besterik ez duela nahi".* (2001-02-09)

CRISTALERIA
GRAN VIA
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Administraciones Antigua
Txema González Rodríguez
Orubeen administratzailea 545. kolegiatua
Tel.: 943 314 604 • Mugikorra: 617 867 846
Arantzazuko Andre Mariaren auzunea 45, behea C

TEUSA
FATXADA ETA MONUMENTOEN KONPONKETA
Zumardi pasealekua 14, 5.ezk.
Tel.: 943 40 14 77 · Faxa: 943 40 15 11
e-mail: teusa@adegi.es
www.teusa.com

Gipuzkoa plaza 4 • 20003 Donostia • Tel.: 943-42 35 65

# GUIPUZCOA
## GALERIAK



ETXEKO TRESNA ELEKTRIKOAK

HOTZGAILUAK • LABEAK

SUKALDEAK • KAFETERAK...








smeg
estilodun teknologia



Odon Elorza
Alkatea

**"PP eta PSE-EEren arteko gobernua hankasartzea litzateke"**

Maiatzaren 13ko hauteskunde atarian, Donostiako alkatea EAEn PSE-EE eta PPren arteko gobernua osatzearen kontra agertu zen: *"Hankasartzea litzateke, Euskadik ez du inongo fronte gobernurik behar, nolabait esatearren, gobernu mestizoak behar ditu"*. Elorzak, bestalde, zalantzan jarri zuen PP eta PSOEren arteko estatu ituna bakea lortzeko baliagarria ote den: *"Itun horrek ez du ekarriko Euskadin biolenzia gainditzeko indar demokratikoen batasuna, eta jarritako helburuak ez ditu lortuko"*. (2001-02-23)



Itxaro Borda
Idazlea

**"Bainuetxe itxurako hiria da Donostia"**

IRUTXULOk Donostia nola ikusten zuen galdetu zion Itxaro Bordari eta idazle baionesak hausnarketarako aukera ematen duen erantzuna eman zigun: *"bainuetxe itxurako eta itsaso aldeari begira bizi den hiri baten moldean, pixka bat Ipar Euskal Herrian Miarritze hartzen dugun bezala, eguna pasa emateko, batez ere frantses adiskideak bisitan etortzen zaizkigunean"*. Bordak, bestalde, adierazi zigun ez zuela uste Donostian Euskal Herriko gainerako hiriburuetan baino euskara gehiego entzuten zenik. (2001-03-23)



Joaquin Arevalo
RACeko presidentea

**"Gizakiaren askatasunaren ispilurik onena kotxea da"**

RAC auto gidarien elkarteko presidenteak Bizikleta Plana ontzat jo zuen IRUTXULOn egindako elkarrizketan, baina hala eta guztiz ere, zenbait egitasmorekin ados ez zegoela adierazi zuen: *"bizikletari protagonismo handiegia ematen zaio. Beraz, gure eskaeren alde borroka egingo dugu. Guk irakurketa bat egiten dugu: gure ustez, gizakiaren askatasunaren ispilu onena kotxea da"*. (2001-03-09)



Anjel Alkain
Aktorea

**"Urte luzez Espainiako umore eredua jaso dugu"**

Anjel Alkain aktore antiguatarrak, Sorginen Laratza-n euskal umorea jorratzen ahalegintzen direla adierazi zigun: *"Urte luzez, hemen egindako komediek Espainiako joerak jarraitu dituzte. Gu, aldiz, hemengo istorioez eta pertsonaiez, hemengo izaeraz baliatu gara gureagoa den zerbait egiteko. Arana eta beste pertsonaien arrakastaren giltza hurbiltasunean datza"*. (2001-03-30)





**abenduaren 28an kalean**

**EROS EZAZU KIOSKOAN**

- **GAZTETXULO 2002. urteari begira:** • Urteberrirako asmoak • Sexu erronka • Zer egongo da modan?
- **Ekologia:** • Proieku erraldoiak • Espezie ugari galtzorian
- **Musika:** Nuevo Catecismo Catolico


Josetxo Ibazeta
Batasunako zinegotzia

**"Baiona-Donostia hiriak gutxi batzuei besterik ez die etekina ekarriko"**

Batasunako zinegotziak eurohiriaren proiektuaz jardun zuen: *"Nolako eduki soziala du plan honek? Guk, behintzat, ez dugu bakar bat ere aurkitu. Azpiegitura beldurgarria eta erraldoia da. Planaren emaitzak superportua eta birmoldaketa handiak dira. (...) Aitzitik, egitasmoak ez die herritarren beharrei erantzuten".* (2001-04-06)


Mikel Urrestarazu
San Martin Azoka

**"Hamabost urte barru saltoki asko hutsik gera daitezke"**

Urrestarazuk San Martingo berrikuntzaren arriskuez hitz egin zuen: *"Hemen geratzea erabaki dugun 32 lagunetatik hamazazpi 15 urte barru erretiratuko dira. Aurreikusitako kontratoak ezarriz gero, saltoki horiek hutsik gera daitezke. Ondoren, saltokiak enpresa handien esku geratuko lirateke. Beraz, San Martinek azoka tradizionala izateari utziko lioke".* (2001-05-11)


Mentxu Medel
Dantza irakaslea

**"Lotsagarria da dantza kontserbatoriorik ez izatea"**

Medelek adierazi zigunez, lotsagarria da Donostian dantza ikasteko kontserbatoriorik ez izatea: *"herri honetan ikuskizunak antolatzera jotzen dugu, baina ikuskizunak egiteko oinarria landu behar da. Dantzaren alorrean hemen ez dago titulaziorik(...). Ikasleek, titulua izan dezaten, Madrilera edo beste norabait jo behar dute".* (2001-05-04)


Javi Sun
Musikaria

**"Musika giroak behera egin du Donostian"**

Javi Sun egiatarrak Donostian musika giroa gaur egun duela hogei urte baino okerrago dagoela esan zigun: *"Oso gaizki ikusten dut. Ez dago jotzeko lokalik, eskerrak Bukowski dugun. Diozun garai horrekin alderatuta, ez dago musika bizitzarik, giroak behera egin du nabarmen. Kultur etxeetan ez dago jotzeko aukerarik".* (2001-05-18)




meg@denda
BILINTX
LARUN BATAK
JON ARRETXE
ANJEL LERTXUNDI
MENTURA DUGUN ARTEAN
Xalbadorren barrua
Abelin Linazisoro
IRAGANEAN GALDUA
SEI LORE
TXEMA GARCIA-VIANA
Susa
Harry Potter
eta Azkabango presoa
Estilo Liburua
Egunkaria
erramun martikorena
OSKORRI
Xabier Lete
Ruper Ordorika
hurrengo goizean
Gazietxeak martxan!
Suhar
DONOSTIAKO ARRIADA
Tamborrada de San Sebastián
4 ITZAL
Fermin Calbeton 21- Tel.: 943 42 00 80 - DONOSTIA
Fermin Calbeton 30- Tel.: 943 42 26 96 - DONOSTIA
Colon pasealekua 8- Tel.: 943 63 17 26 - IRUN
Arostegieta z/g- Tel.: 943 67 35 33 - TOLOSA
Ibargarai 12- Tel.: 943 76 40 50- BERGARA